



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2
EGUNA: 2020/02/27
ORDUA: 19:00
TOKIA: Udaleko Pleno Aretoa.

Nº: 2
DÍA: 27/02/2020
HORA: 19:00
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento.

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, alkatea

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotza udal taldea

Pedro Bengoetxea
Ane Miren Egidazu
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambronero
Eneritz Gómez
Miren Esnal

Idazkaria: Jorge González

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, alcalde

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Grupo municipal Debarren Ahotza

Pedro Bengoetxea
Ane Miren Egidazu
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

Grupo municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambronero
Eneritz Gómez
Miren Esnal

Secretario: Jorge González



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

ESAN-EGINAK **ETA**
ERABAKIAK:

**1. AURREKO BILKUREI
DAGOZKIEN AKTEN
ZIRRIBORROA ONARTZEA,
HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak dio aktak prestatzen ari direla oraindik.

Iñigo Cambronerok galdetzen du ia zenbat falta diren.

Jorgek dio bideo guztiak daudela baina idatziz 2019ko urriaren 30ekoak eta ondorengoak falta direla.

2. ALKATETZA DEKRETUAK

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira ondorengoaz:

TEMAS **TRATADOS** **Y**
ACUERDOS:

**1.- APROBACIÓN, SI
PROCEDE, DEL BORRADOR DE
LAS ACTAS DE LAS SESIONES
ANTERIORES.**

El secretario informa que las actas escritas están siendo preparadas todavía.

Iñigo Cambronero pregunta cuántas actas faltan.

Jorge responde que están todas las actas en video pero que por escrito faltan desde el 30 de octubre de 2019.

2. DECRETOS DE ALCALDÍA

Los asistentes quedan informados de las siguientes Resoluciones:

12	2020/01/24	Doniene Txiki baserrian egiten ari diren obrak gelditzea.	2014UROM0016
13	2020/01/24	Doniene Txiki baserrian egiten ari diren obra baimena ez ematea.	2014UROM0016
14	2020/01/29	Gizarte larrialdietarako laguntzak onartzea eta ordaintzea. AES715-2019 urtekoa.	
15	2020/01/29	Gizarte larrialdietarako laguntzak onartzea eta ordaintzea.	
16	2020/01/29	Etkez etxeko laguntza zerbitzua ematea.	



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

17	2020/02/03	L.R.T. hirigintzako administrari laguntzaile izendatzea, titularraren aldi baterako ordezkapena egiteko.	
18	2020/02/06	Udal erroldan baja ematea iraungitzeagatik.	2020SEBC0010
19	2020/02/07	Lersundi 26an egitekoa den obrak ezarrita dituen baldintzak betetzea.	2018UROM0018
20	2020/02/14	Bitarteko funtzionario izendatzea udal arkitekto teknikari gisa.	2019SCTP0003
21	2020/02/17	Bitarteko funtzionario izendatzea idazkaritzako teknikari gisa.	2020SCTP0001
22	2020/02/07	Arkitektoa kontratatzeako prozedura argitzea.	2020SCOU0001
23	2020/02/11	Arkitekto aholkularia kontratatzeako prozedurari hasiera ematea.	2020SCOU0001
24	2020/02/14	Debako Udalari arkitekturan aholkularitza emateko kontratu txikia.	2020SCOU0001
25	2020/02/14	Obra txikia- Komuna berritzea.	2020UOME0018
26	2020/02/17	Lehen erabilera baimena. Ifar kalea 15.	2019ULOK0001
27	2020/02/17	Obra txikia-Bainera dutxagatik aldatzea.	2019UOME0136
28	2020/02/17	Obra txikia- Bi leiho aldatzea.	2020UOME0004
29	2020/02/17	Obra txikia- Erreforma orokorra eta lau leiho aldatzea.	2019UOME0139
30	2020/02/18	GUREAK MARKETING S.L.U enpresari adjudikatzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioan" (1. sorta) oinarritutako kontratua.	2020SCOU0003
31	2020/02/18	SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS S.A. SME enpresari adjudikatzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioan" (2. sorta) oinarritutako kontratua.	2020SCOU0003

3. KULTURAKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

3. APROBAR, SI PROCEDE, LAS BASES DE LAS SUBVENCIONES DE CULTURA.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

Aritzek adierazten du oinarriak Kultura Batzordean onartuta daudela. Aurten egokitzapenak egin direla eta Osoko Bilkurak onartzea falta dela.

Aritz señala que las bases están aprobadas en la Comisión de Cultura. Este año se han hecho adaptaciones y falta la aprobación por parte del Pleno.

Bozketa egin ondoren aho batez onartzen dira.

Tras la votación se aprueban por unanimidad.

4. BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDENENTZAT, ESKUALDEKO ETXEBIZITZAREN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

4. ACORDAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE LA VIVIENDA COMARCAL PARA PERSONAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN.

Aritzek adierazten du abian zegoen proiektua dela eta eskualdeko teknikariek adostu direla oinarriak. Batzordean ere onartu ziren; Osoko Bilkuran onartzea falta da.

Aritz señala que es un proyecto que estaba en marcha y que se han consensuado las bases con los técnicos de la comarca. También se aprobó en la Comisión; sólo falta la aprobación en Pleno.

Bozketa egin ondoren aho batez onartzen dira.

Tras la votación se aprueban por unanimidad.

5. MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENA ADOSTEA, HALA BADAGOKIO.

5. ACORDAR, SI PROCEDE, EL MANIFIESTO DEL 8 DE MARZO.

Itziar Irizarrek adierazpena irakurtzen du.

Itziar Irizar lee la declaración.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

Bozketa egin ondoren aho batez onartzen da.

Tras la votación se aprueba por unanimidad.

6. PREMIAZKO GAIA: UDALEKU IREKIAK

Alkateak premiazko gai bat sartzea eskatzen du: udaleku irekiak.

Bozketa egin ondoren aho batez onartzen da premiazko gaia sartzea.

Idazkariak udaleku irekiak kontratatzeko prozedura azaldu du. Kontratua lege berrira egokitu duela dio.

Orain pleguak, proposatutako aldaketekin barne, onartu ala ez udalbatzak bozkatu behar du.

Bozketa egin ondoren aho batez onartzen dira.

7. ESKARI ETA GALDERAK

Pedro Bengoetxeak Itziarko gaiari buruz galdetzen du ea Aldundiak egindako errekerimenduari nola erantzun zaion.

Deba eta Mutriku arteko zubiaren

6. TEMA DE URGENCIA: COLONIAS ABIERTAS

El alcalde solicita introducir un tema de urgencia: colonias abiertas.

Tras la votación se aprueba por unanimidad introducir el tema de urgencia.

El secretario expone el procedimiento para contratar colonias abiertas. Dice que ha adaptado el contrato a la nueva ley.

El pleno tiene que votar la aprobación de los pliegos, incluidos los cambios propuestos.

Tras la votación se aprueban por unanimidad.

7. RUEGOS Y PREGUNTAS

Pedro Bengoetxea pregunta sobre el tema de Itziar: cómo se va a dar respuesta al requerimiento realizado por la Diputación.

También pregunta sobre el estado



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

konponketaren egoerari buruz ere galdetzen du.

Alkateak erantzuten du Aldundiaren errekerimenduari buruz, Itziarko Batzordean hartutako erabakia martxan jartzea erabaki dela. Prozedura nola egin ikusi behar da. Juridikoki aztertuko da eta martxan dago, epe laburrean honen berri izango dugu eta luzatuko diogu Aldundiari.

Zubiari buruz, bilera bat izan dugu gaur bertan beste gai batzuren inguruan ondareko zuzendariarekin eta baita martxan dago gaia baina ezin ditugu data zehatzak eman. Guri txosten teknikoa pasa behar digute eta espero dugu martxoko Osoko Bilkuran onartzea martxan jartzeko; bai Deban eta bai Mutrikun.

Iñigo Cambronerok idatzizko aktak azarotik falta direla eta horretarako baliabide gehiago jartzea eskatzen du eta presa pixka batekin hartzeko. Bideoei buruz, Jorgeri eskatzen dio egiaztatzeko benetan akta bezala balio dutela. Jorgek dio bideoak akta bezala

de la reparación del puente entre Deba y Mutriku.

El alcalde responde sobre el requerimiento de la Diputación, que se ha decidido poner en marcha el acuerdo adoptado en la Comisión de Itziar. Hay que ver cómo hacer el procedimiento. Se examinará jurídicamente y está en marcha, en un breve plazo de tiempo tendremos conocimiento de esto y lo extenderemos a la Diputación.

Sobre el puente, hoy mismo hemos tenido una reunión en relación a otros temas con el director de patrimonio, y el tema está en marcha, pero no podemos dar unas fechas concretas. Nos tienen que pasar el informe técnico y esperamos aprobarlo en el pleno de marzo, para ponerlo en marcha; sí en Deba y sí en Mutriku.

Iñigo Cambronero dice que las actas escritas faltan desde noviembre y solicita poner más medios para ello y cogerlo con un poco más de prisa. Sobre los videos, le pide a Jorge que verifique si de verdad tienen validez como acta. Jorge dice que el video sirve



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

balio duela eta legearen arabera ez dela beharrezkoa transkribatzea. Hala ere transkribatuko dira.

como acta y que según la ley no es necesario transcribirlo. No obstante, se transcribirán.

Gilenek onartzen du arazo teknikoak egon direla baina konpontzen ari direla.

Gilen reconoce que ha habido problemas técnicos pero que se están solucionando.

Iñigo Cambronerok dio aurreko bilkura batean, sare sozialak erabiltzeko jarraibide bat egiteko iradokizuna egin zutela eta ea gai hau landu den eta nola dagoen galdetzen du.

Iñigo Cambronero dice que en una sesión anterior hicieron una sugerencia para hacer una pauta de uso de las redes sociales y se pregunta si se ha seguido este tema y cómo está.

Gilenek dio ez dutela oraindik landu baina gai hori jorratzeko asmoa agertzen du. Agian, aholkua eska dakioket komunikazio arduradunari.

Gilen dice que todavía no lo han tratado pero que se plantea trabajar este tema. Quizás se pueda pedir consejo a la responsable de comunicación.

Horrenbestez, 19:23etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:23 horas.

Jorge González Endemaño
Idazkaria /Secretario

Gilen Garcia Boyra
Alkatea / Alcalde





2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

I.ERANSKINA /ANEXO I

M8ko Adierazpen Instituzionala -Emakumeen Nazioarteko Eguna. *EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK.*

Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legetan, gizartean eta kulturean, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzen borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarrizko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.**

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;

Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturen parte hartzeko; Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;

Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik,ko Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan**, honako neurri hauek abian jarririk.

Toki-eremuan berdintasunaren konpromisoan aurrera egiteko neurri posibleak:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- [Tokiko Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunari](#) atxikitzea, eta Gutunean zehaztutako konpromisoak aplikatzea bere lurraldean.
- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerrri batzuekin elkartuta.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Tokiko Ekintza Plana garatzea, haren eragina ebaluatzea eta emaitzen berri ematea.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.
- Indarkeria matxistaren arretarako eta prebentziorako Tokiko Koordinazio Protokoloa garatzea edota eguneratzea.
- Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0002

2.Bilera: OHIKOA 2020/02/27

- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.
- Udalerriko emakumeak ahalduntzeko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako tokiko politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko.
- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin – [Berdinsarea](#) – bat egiteko urratsak ematea. Sare horren helburua da indarrak batzea eta tokiko gobernuek elkarrekin jardutea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatzeko, indartzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.

Azkenean, Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.